



Itturritxo ondoko etxia

Atzeko kaleko jaixak gaiñian dirala, **Itturritxo** aldiak izan dittuan aldaketa batzuk gogoratuko dittugu gaurkuan. Ezta hainbeste urte be argazkixan agiri dan inguru horren itxuria kanbixaitten hasi zala. Azkenaldixan modutu dan **Goiena** auzo barrixa egin ahal izateko. Ubao erreikia desbideratu egin zan lenehengo, Uraingo zubi zaharra itsutuaz; gero, ezkerretara ikusten dan **Arruene**ko fabrika ereitsi zan, oraingo bizitza-pillia eta plazuelatxua jasoteko; eta itturritxa bota ez bazan be, erantsita eukan etxetxua eta askia bai, itturritxa bera haruntzatuago eruanez; orain dala gutxi, berriz, itturri aurrian eguen **Urruxune**ko etxia bota da, baiña bere atetzarreko harlandu ederrak bertan itzi dira testigutzat.

Argazkixan agiri dan **Josune Kortabarriaren** aitta, Esteban, Itturritxoko etxe horretan jaixua ei zan eta, Olabarrietako Aldai baserriko Karmen Alzelairekin ezkondu eta urte batzuetan Oñatin bizi ondoren, Legazpira fan zan, beste txantxikuar askoren moduan Patrizionera lanera, II. Errepublikaren hasieran. Josunek eta bere ahizpia dan **Marixabel Kortabarriak** kontau doskuenez, Itturritxoko aittajauna eta amandria **espartingilliak** ziran: aittajaunak eginddako alpargata-zorua amandriak gaiñeko telia moztu eta josten osten. Etxeko sarreran ezkerretara eukain espartañak saltzeko denda txiki bat be. Gaiñera **jazte-txia** be bazan etxetuori, hau da, Uribarri aldetik-eta kalera etozen baserritarrak oiñetakuak aldaketako eta beste zeregin batzuetarako eukain lekua. Josune letxe Legazpin bizi dan Marixabalek goguan dako itturri ondoko **askaan** auzoko panaderixetako zaldixak edaten euela. Sasue haretan be hiru izango ziran inguruko okindegixak: Atzeko kalia Eskolatxorena eta Lamberto Isasarena (gaur egungo Irizarrenian), eta Kale Barrixan Egañarena.

Fotografixia 1957 aldera atara eben **Tomas Bravo** Blanquita Maizen gizonak, haren lehengusiña Josunerekin eta beste senide batzuekin Oñaitira etorri ziraneko batian. Honeik dira argazkixan ezagutu ahal izan diranak ezkerretik eskumara:

Ezegazunak dira ezkerreko neskaitilla bixak, baita ate onduan daguena be; aittajaunak besuetan dakon umia **Mertxe Bravo** da; aittajauna, **Pedro Maiz** legorretarra, Blanquitaren aitta da; Arantzazuko Amaren irudixaren azpitan Josuneren senarra, **Felix Mauleon** arroitza, agiri da; Josuneren onduan bere lehengusiña, **Blanquita Maiz**, Irunen bizi dana; eta aurrian dague mutikua **Jabier Bravo** dogu, Blanquita eta Tomasen semia.

J. E.

Argazkixa Samuel Mauleonen bittartez eskuratu dogu. Argibiderik gehixenak, Josune eta Marixabel Kortabarriari zor dostegu. Milla esker danoiri!